



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

Nafarroako Arartekoaren Adierazpen Institutuzionala, Giza Eskubideen
Aldarrikapen Unibertsalaren (1948-2023) 75. Urteurrenaren Harira

Giza eskubideak, oraindik eraikitzen ari den desira



**Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa**

HITZAURREA

2023ko abenduaren 10ean 75 urte bete ziren Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik; Nazio Batuen Batzar Nagusiak aldarrikatua Parisen.

Hitzarmen historiko honek pertsona orok gizaki gisa dituen eskubide besterenezinak aitortzen ditu; arraza, kolorea, erlijioa, sexua, hizkuntza, iritzi politikoa, nazionalitatea, gizarte-jatorria ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein baldintza gorabehera.

Manifestu horretan, historian lehen aldiz, oinarrizko giza eskubideak zerrendatzen dira, eta mundu osoan babestu behar direla ezartzen da. Honako hau aitortzen da: *“Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxiestearen ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla; eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia orotik aske, hitz egiteko askatasuna eta sinesmen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusi”*.

Ezinbestekotzat jotzen da honako hau: “giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia-tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrean aurkitu ez dadin”, bai eta “herrialdeen artean harreman lagunkoiak bultzatzea” ere.

1948ko abenduaren 10 hartatik, 75 urte igaro dira.

Hamarkada hauetan zehar, giza eskubideen aitorpenak eta bermeak aurrera egin dute aldarrikapen horri esker, horiek babesteko erreferente unibertsal gisa balio izan baitu.

Manifestu hau tresna bikaina izan da, oinarri trinkoa, babes sendoa herri guztientzat eta giza eskubideak alde batera utzi edo, are gehiago, urratu diren lekuetan aldarrikatzeko ahotsa altxatu behar izan duten pertsona guztientzat.

Zoritzarrez, egia da, halaber, aldi berean, gehiegitan, giza eskubideak ez direla errespetatu (errespetatzen). Aldarrikapena egote hutsa ez da nahikoa hura babesteko.

Giza eskubideak zapalduak, urratuak eta hautsiak izanak (eta gaur egun ere hala gertatzen jarraitzeak) arrazoi asko izan ditu (eta ditu).

Hamarkada hauetan, kontaezinak izan dira munduan milioika pertsonak beren eskubiderik oinarrizkoenen (bizitzeko eskubidea barne) urraketa pairatu izanaren arrazoiak.

Gure inguruan, Nafarroan, hamarkada hauetan bertan gerraoste gogorra, diktadura, terrorismoa eta tortura pairatu ditugu.



**Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa**

Eta, begirada gaurkotuagoa ematen badiogu, beste afekzio batzuk etor dakizkiguke burura, hala nola Europako gerra eta, beste arlo batean, pandemia krudela. Azken kasu horretan, agerikoa da ez dela lehen aipatutakoen antzeko eskubide-urraketa sistematikorik, baina egia da horietako batzuk mugatu egin direla, hain zuzen ere, interes handiagoko beste batzuen defentsaren ondorioz. Egia esan, gogoratu nahi ez izatearen poderioz, pandemia ahaztu nahi da, eta horrek gure bizitzako aldi garrantzitsu batean jasan dugunaz gutxiago jabetzea eragiten digu. Eta, are okerrago, ez gara gehiago jabetu edozein unetan gerta daitekeela berriro, eta ez dugu atera hurrengo aldian hobeto gainditzeko behar dugun ikaskuntza sozial eta kolektiboa.

Baina baditugu beste arrazoi garrantzitsu eta oso kezagarri batzuk ere, hala nola inboluzio autoritario eta totalitarioak, negazionismoa eta eskubideak ez aitortzeko eskubidea izateko aldarrikapena.

Horrek guztiak erakusten du ez dela nahikoa adierazpenak egitea; Giza Eskubideen defentsak ekintza eta aktibismo positiboa eskatzen ditu, eskubide horien aitorpenerako eta babeserako.

Eskubideak ez dira irabazi beharreko zerbait, **dagoeneko badagoen** zerbait dira, eta, alde batera utzi edo ezabatu nahi direnean, erreklamatu, exijitu edo berreskuratu egin behar dira. Giza eskubideak besterenezinak dira, ezin dira galdu, gizaki guztiei datxezkielako eta giza existentziaren baitan daudelako.

Azaldutako egoera zailez gain, Giza Eskubideek erronka eta desafio berriei egin behar diete aurre, gaur egun eta etorkizunera begira.

Lehenik eta behin, eskubideak errealitate unibertsal berrira egokitzea —1948koaren oso desberdina—: klima-aldaketa, globalizazioa, digitalizazioa, sare sozialak, adimen artifiziala eta abar.

Eta, bestalde, errealitate berri horrek eskubide berriak aitortzeko beharra ekar dezake, hala nola iraultza digitalari lotutakoak: datu pertsonalen babesa, sarearen neutraltasuna, irisgarritasun digitala, algoritmoen gardentasuna eta trazabilitatea edo ahazteko eskubidea, besteak beste.

Eten digitala, migrazio-eredu berriak eta klima-aldaketa estatuen banakako ekintzaaukerak gainditzeko ari diren egoerak dira. Horregatik, Nazio Batuen 2030 Agenda bezalako ekimenak nazioz gaindiko ekintzak koordinatzera deituak daude eta bultzada ona dira, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren berrikuspenera lortu beharko lukeena.

Jakina, berrikuspenera horren helburua izan behar da haiek egokitzea, hedatzea eta haien bermea hobetzea, lehen aipatutako mugimendu inboluzionisten aurrean.

Beraz, lan nekeza eta luzea da, eta norabide horretan lehen urratsak ematen hasiz gero bakarrik lortu ahal izango da. Guk gure esparrutik eta gure esku dagoenetik egin behar dugu ekarpena.



**Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa**

Puntu honetara iritsita, oso egokitzat eta garrantzitsutzat jotzen da honako paradigma hau ezartzea: “*globalki pentsatu, tokian-tokian jardun*”.

Oso zaila iruditu dakiguke lehen aipaturako ildo unibertsalean lan egitea, baina jakin behar dugu gure jarduera pertsonal eta profesional guztiek lagun dezaketela guztion ongizatea lortzen edo ez.

Horregatik, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren planteamendu **global** horrekin ados bagaude, jabetu behar dugu gure **tokiko** ekintzak lagundu edo kendu egingo duela norabide horretan, pertsona guztien eskubideetan aurrera edo atzera egiten lagunduko duela.

Nafarroako Arartekoa Parlamentuaren goi mandataria da, zehazki, “*Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunak defenditzeko eta hobeki babesteko, eta herritarrak Administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean babestea izanen du eginkizun nagusi*”.

Lan hori egiteko modurik onena herritarrek beraiek aurkeztutako kexen bidez egitea da; izan ere, herritarrak dira, egunerokoa, ez-betetze, egite edo ez-egite kasu posibleak gehien hautematen dituztenak. Beraz, Arartekoak gizartearekin batera egin beharreko lana da, guztion artean eta guztiontzat bermatzea.

Nafarroak, zorionez, egitura bikaina du sarean, gizarte-erakundeek osatua. Boluntariotzatik eta gizarte-konpromisoak ematen duen ahaleginetik abiatuta, giza eskubideen urraketen kasuen defentsa irmoa egiten dute, eta kolektibo eta pertsona zaurgarrienei laguntza ematen diete.

Batzuetan, erakunde horiek administrazioei egotz dakiekeen erantzukizuna duten beharrianak betetzen dituzte, eta, gutxienez, laguntza hori behar bezala gauzatzeko behar duten euskarria eman beharko liekete administrazioei.

Gure gizartearen lortutako ongizate-estatuari esker, eta erakunde horiek sistemaren “hutsune” garrantzitsuak betetzeko egiten duten ahalegin nekaezinari esker, Nafarroako gizartea Espainiako bizi-kalitate handieneko autonomia gisa aitortua da gaur egun. Baina hori ez da nahikoa. Oraindik zenbait pertsona benetan atzean geratzen ari dira, eta ezin dituzte beren eskubide guztiak baliatu. Horregatik, gure erkidegoan “nafar herritartasunaz” dihardugunean, egia esan, ez dihardugu gurekin bizi diren pertsona guztiez, definizio kolektibo horretan herritarren estatusa ere lortu ez duten pertsonak falta zaizkigulako.

Gainera, pertsona askok ez dakite eskubideak dituztela edo zer eskubide dituzten, ez eta eskubide horiek aldarrikatzeko eta eskatzeko zer egin behar duten ere. Beraz, “unibertsaltasunak”, kontzeptu absolututik harago, geografikoki, argi eta garbi adierazi behar du, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 1. artikulua dioen bezala, honako baieztapen hau: “gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela”. Oraindik eraikitzen ari den desira horretan, borondateak, konpromisoak eta ahaleginak batu behar ditugu.



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 75. urteurrenaren harira, Nafarroako Arartekoak eta aldarrikapen horrekin bat egitea onartu duten gizarte-erakundeek publikoki adierazi nahi dute Nazio Batuen aldarrikapenean jasotako giza eskubideen aldeko konpromiso leial eta irmoa dutela.

Konpromiso hori honako dekalogo honetan zehazten da:

- 1) Aldarrikapen Unibertsalaren espiritua Nafarroako Arartekoaren eta gizarteerakundeen etengabeko lanaren aplikazio-**irizpideen inspirazioan** txertatzea, tratatutako kasu guztietan Giza Eskubideen aplikazioa hobeto defendatzeko.
- 2) Hainbat arrazoiengatik horien aurka egiten diren **mehatxuen aurka borrokatzea** (klima-aldaketa, gerrak, mota guztietako desparekotasunak, genero-indarkeria, pertsonen salerosketa, adimen artifizialaren erabilera desegokia, negazionismoa, autoritarismoen berpizkundea, arrazakeria eta xenofobia eta abar).
- 3) Gizarte-erakundeek Nafarroako Arartekoarekin **lankidetzan** aritzea, Administrazioak eta haien erakunde publikoak ikuskatzeko eginkizuna hobeto bete dezaten, pertsonen eskubide besterenezinen subjektu gisa zerbitzua emateko gaitasuna eta jarrera etengabe hobetzeko.
- 4) Kontuan hartzea giza eskubideak XXI. mendeko gure gizartearen egungo errealitatera **egokitzea** eta jakintza-arlo berrien eta aurrerapen zientifikoaren ondorioetatik eratorritako **eskubide berriak** aitortzea.
- 5) Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren **ezagutza zabaltzen laguntzea**, pertsona guztiek hura bete dadila aldarrikatu ahal izan dezaten.
- 6) Pertsonen **trebakuntzan laguntzea**, beren eta besteen eskubideak defenda ditzaten.
- 7) Giza Eskubideetarako, Berdintasunerako, Gizarteratzeko, Bakerako eta Bizikidetzarako **heztea**.
- 8) Modu **proaktiboan** jardutea, eskubideak urra ez daitezen, eta, ezinezkoa denean, **jarduketa errestituatiboak** defendatzea.
- 9) **NBEren 2030 Agenda erabat garatzen laguntzea**, Giza Eskubideen zuzeneko osagarri gisa, benetan iraunkorra den garapena lor daitekeen neurrian, 17. GJH betez.
- 10) Aurrera egitea Nafarroako Arartekoaren eta gizarte-erakundeen arteko lankidetzan, **sinergiak** lortzeko Giza Eskubideen defentsa eta hedapen hobea lortzeko borrokan, eta **“inor atzean ez uztea”** betetzen laguntzeko.



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

Hori guztia, une honetan (2023) eta leku honetan (Nafarroan) Giza Eskubideen benetako UNIBERTSALTASUNA lortzeko azken helburuarekin, **“pertsona guztiak eskubide guztiak dituztela”** dioen ikuspegi partekatuarekin. Aldarrikapen honekin bat egiteko gonbitea onartu duten gizarte-erakundeek, Nafarroako Ararteko honekin batera izenpetu dute Aldarrikapena.

Patxi Vera Donazar
Defensor del Pueblo de Navarra
Nafarroako Arartekoa



Alicia Giménez García
Coordinadora de Acción
Contra la Trata



Raquel Pardo del Burgo
Presidenta de Asociación
Aralar Elkarte



Raquel García Salaberri
Vicepresidenta de Asociación
de Familiares de Personas con
Alzheimer y Otras Demencias
de Navarra AFAN



Elena González
Asociación de Familias
de Acogida de Navarra - Magale



Joaquín Espinazo González
Presidente de Asociación de
Fibromialgia de Navarra - AFINA



Jose Luis Jiménez Jiménez
Presidente de Asociación de
Gitanos de Navarra - La Majarí



Ana Marta Andía Casado
Presidenta de Asociación de
Personas con Discapacidad en
la Ribera de Navarra (AMIMET)



Francisca Pulgarín Fernández
Secretaria de Asociación de
Personas Sordas en Navarra-
ASORNA



Sara Vicente Collado
Representante de Asociación
Ehuleak Nafarroa



Irati Vidán Navarro
Presidenta de Asociación Haziak



Rubén Sola Pérez
Presidente de Asociación
Hazialdea Elkarte



Sergio Álvarez Ajuria
Presidente de Asociación
Ibili Elkarte



Alberto Urteaga Villanueva
 Coordinador - gestor de Asociación
 Itxaropen Gune - Lugar de
 Esperanza (AIGLE)



María Rosario Lara Echechipía
 Voluntaria y socia más antigua
 de Asociación Lagundu-Arakil



Lydia Almirantearena Larrañeta
 Representante de Asociación
 Lantxotegi Elkarte



Manuel Burguete Zubillaga
 Presidente de Asociación
 de Mayores Lacarra



Paula Rodríguez Arruti
 Directora de Asociación
 Navarra de Autismo (ANA)



M^a José Oraa Ezquer
 Presidenta de Asociación Navarra
 de Cáncer de Mama SARAY



Jose Ramón Iriarte Goyena
 Presidente de Asociación Navarra
 de ELA - ANELA



María Ángeles Mariñelarena Aranzadi. Presidenta de
 Asociación Navarra de Espina
 Bífida e Hidrocefalia ANPHEB



Cristina Mondragón
 Presidenta de Asociación
 Navarra de Fibrosis Quística



Mila Ortin Villeras
 Presidenta de Asociación Navarra
 de Parkinson - ANAPAR



Jesús Suescun
 Representante de Asociación
 Navarra de Prejubilados
 y Pensionistas - ANAPP



José Luis Cabero Herreras
 Presidente de Asociación Navarra
 para la Salud Mental - ANASAPS



Manuel Arellano Armisen
Representante de Asociación Para
la Lucha Contra Enfermedades
Renales - ALCER Navarra



Yuliana Anchundia Correa
Responsable en Navarra
de Asociación Rumiñahui



**Víctor José García Morales
y Maite Ciganda San Martín**
Presidente y directora de
Asociación SEI Elkartea



M^a José Leoz Tellería
Vicepresidenta y gestora
de Asociación Síndrome
de Down Navarra



David Erice Vidaurre
Presidente de ASPACE Navarra



Maite Quintana Saldise
Directora de CARITAS Diocesana
de Pamplona-Tudela



Idoia Oneca Munárriz
Coordinadora de Comisión
Española de Ayuda al Refugiado -
CEAR Navarra



Mariluz Sanz Escudero
Presidenta de Comité de Entidades
Representantes de Personas con
Discapacidad en Navarra - Cermin
Navarra



Joaquín Almaguera Latasa
Presidente de Confederación
T3rcer Tiempo



Santiago Rodríguez Santa Cruz
Presidente de Coordinadora
de Personas con Discapacidad
Física de Navarra - ACODIFNA



Javier Abad Vicente
Presidente de Coordinadora
ONGD Navarra



Isabel Cadena Riera
Presidenta autonómica
de Cruz Roja Navarra



Teresa González Imaz
Apoderada de Elkarri Laguntza -
Apoyo Mutuo



Ricardo Hernández Jiménez
Coordinador de Federación de
Asociaciones Gitanas de Navarra
Gaz Kaló



Cristina Mondragón Urrizalqui
Gerente de Federación Navarra
de Asociaciones de Personas con
Discapacidad Física y Orgánica



Marisol Villar Lecumberri
Presidenta de Fundación Banco
de Alimentos de Navarra



**María Dolores Figueiras
San Martín**
Representante de Fundación
Gaztelan



**Jose Antonio Villanueva
Oyarzabal**
Presidente de Fundación
Gizakia Herriar Paris365



Manolo Sanz Gamboa
Presidente de Fundación
Ilundain - Haritz-Berri



**José Antonio Arrieta
y Alfonso Arana**
Presidente y director de Fundación
Proyecto Hombre Navarra



Gilberto Padrón Rodríguez
Director de zona - Navarra de
Fundación Santa Lucía - Adsis



Inés García Pérez
Directora territorial en Navarra
de Fundación Secretariado Gitano



Pablo Sánchez Valverde
Presidente de Fundación
Taller Escuela Etxabakoitz



Manuel Campillo Meseguer
Vicepresidente de Fundación
Tudela Comparte



Idoia Urzainqui Beorlegui
Directora general de Fundación
Xilema




Valentín Fortún Arriezu
Delegado de Grupo Social
ONCE en Navarra



M^a Teresa Fortún Pérez de Ciriza
Presidenta delegada de la dele-
gación de Pamplona de Manos
Unidas



María Alexandra Réquiz Díaz
Presidenta de Médicos del
Mundo Navarra / Munduko
Medikuak Nafarroa



Ricardo Hernández Jiménez
Presidente de Red Navarra de
Lucha Contra la Pobreza y la
Exclusión Social



**Joseba Andoni
Romeo Mauleon**
Presidente de Traperos
de Emaús Navarra



Mikel Aguirre Errea
Presidente de UNICEF
- Comité Navarra



Josefina Goñi Tellechea
Directora de Villa Teresita